

ttüpi-ttapa

1994ko azaroak 3 • 145. zenbakia

Elkarrizketa

Koldo FAGOAGA
leitzarrarekin



BELATE
ITXURALDATZEN

Zure soldataren erdiarekin bizi ahal izango duzu?

■ Zer gertatuko ote da pentsioekin?

“40 urte ingurukoek ez dute pentsioa ziurtatuta” esan du Ekonomia Ministroak.

■ Zergatik?

Estatuak pentsioak ordaintzeko haina dirurik ez duelako izanen.

■ Zer aldatzen ari da hau gerta dadin?

- Jendea gero eta urte gehiago bizi da.
- Jaiotzak beheruntz doaz.
- Beraz, gero eta gutxiago dira lanean eta gero eta gehiago pentsionistak.

■ Zer egin honen aurrean?

Norberaren erabakia da:

- Pentsioekin gertatuko denaren zai geratu
- Edo bakoitzak bere etorkizuna ziurtatu.

Zure asmoa bigarren hau baldin bada, hona hemen pentsio plan baten adibide bat:

Adina	Urteak dirua jartzen	Jarritako kapitala	Hartzeko kapitala	Hileroko kuota	
				Biharko pta.tan	Gaurko pta.tan
30	35	16.257.654	57.997.656	410.698	74.456
35	30	11.958.993	35.919.318	254.355	58.852
40	25	8.590.878	21.662.286	153.397	45.299
45	20	5.951.871	12.561.810	88.954	33.526
50	15	3.884.142	6.840.345	48.439	23.300

* Taula hau hilean 15.000 pezeta sartu, urtean % 5a gehituz eta planak % 8ko errentagarritasuna ematen duela kontuan izanik egin da. Zure kasu pertsonala guk aztertzea nahi baduzu, pasa zaitez gure bulegoetatik eta bertan gustora eginen dizugu simulazio bat.

Pasa zaitez gure bulegoetatik

- BERA •
- DONEZTEBE •
- LEITZA •
- LESAKA •



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Koldo FAGOAGA:

«Jubilatuen bidaietan otordu ona egitea ikaragarri estimatzen da»

DATUAK.....

❖ Koldo Fagoaga Leitzako Jubilatuen Elkartearen lehendakaria da.

❖ Sortzez Donostiarra izan arren, bizitzaren erdia Leitzan emana du.

❖ Duela bi urte jubilatutako zen. Orain denbora gehiago du bere bizi osoko afizioak lantzeko: dibujoak egin eta numismatika eta filatelia bildumak osatzeko, alegia.

❖ Jubilatuen Elkartearen eskudoa berak marraztua da.

NOIZ SORTU ZEN LEITZAKO JUBILATUEN ELKARTEA?

Elkarte bezala funtzionatzeko bagenituen honez gero urte batzuk. Halere, behar bezala legalizatu urte honen hasieran egin dugu. Kontua da dirulaguntzak lortzeko behar beharrezkoa dela elkartearen legeztatua izatea eta gauza jakina da, dirurik gabe elkarte batek ez duela zer egin haundirik.

ZENBAT BAZKIDE EDO SOZIOK OSATZEN DUTE ELKARTEA GAUR EGUN?

Oker ez banago ehun eta berrogeita hamarren batek edo...

ZEIN DIRA ELKARTEAREN HELBURUAK ETA MOMENTU HONETAN DITUEN PREMIARIK GARRANTZITSUENAK?

Helburuen artean bi dira aipagarrienak: jubilatutako elkartearen eta bidenabar, jubilatutako urte hauek eramangarriagoak egiten laguntzea. Horixe da funtsean. Momentuko premiei dagokionez, bestalde, jubilatutako egoitzako kalefakzioa berritzea izanzen zen bat. Obra hau martxan dago, eta Leitzan gasa sartu behar dutela pro-



bextuz, gas-kalefakzioa jartzea pentsatzen dago. Hordagopisu tutelatuen kontua ere, bainan azken hau oraindik berde dago.

NOLAKO AKTIBITATEAK ANTOLATZEN DITUZUE URTEAREN BURUAN?

Zer esango nizuke ba... denetik pixka bat. Azkenekoz Gares-

Puente la Reina aldean egun pasa ibiliak gara, eta egia esan, otordu ederra egin genuen, eta hori oso inportantea da eguna ongi joateko; otordu ona, mus partida eta dantza. Arkupeak elkarteak antolatzen dituen bidaietan ere, jendeak primeran pasatzen du. Bestalde, aurten ere hor dugu gimnasia ikastaroa eta jende asko animatu da. Prezioaren erdia elkarteak ordaintzen du eta beste erdia jubilatutako. Eskulan ikastaroa ere antolatzen hasiak gara,

batez ere emakumeentzat, gantxilloa eta horrelakoekin eta geroago beharbada pintura ikastaroa ere antolatuko dugu.

ZENBATEKO PRESUPUESTOA DU HONAKO ELKARTE BATEK?

Gutxi gora behera milioi bat pezeta edo...

ZER NOBEDADE DUZUE DATORREN URTEARI BEGIRA?

Kultur Astearen se-rioago parte hartzeko asmotan gabiltza, erakusketa eta kirole- tan parte hartuz... en- fin, ikusiko dugu.

❖ «Leitzeko Jubilatutako Elkartearen helburuen artean bi dira aipagarrienak: jubilatutako elkartearen eta bidenabar, jubilatutako urte hauek eramangarriagoak egiten laguntzea»

TESTUA:

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ARGAZKIA:

M. KARMELE TOLOSA

BELATEKO TUNELA: PROIEKTU ERRALDOI BATEN ARAZO 'TIKIAK'

Asteotan Belateko errepidean barrena joan direnak bertan egiten ari diren lanak ikusi ahal izan dituzte. Belateko tunela martxan da eta batzuentzat honek ekarriko duen mesedea —Iruñera joateko ordu laurden guttiago beharko da, adibidez— lanek sortzen eta sortuko duten kaltea —ingurugiro arazoak aipatzen dira bereziki— ahazteko nahikoa da. Baina zertan da proiektu hau?



b

Bi tunel horietako bat Belateko Tunela deitzen da, eta bere 2.890 metroko luzerarekin Nafarroako tunelik haundiena izanen da. Honen hasierako aurrekontua 2.872,7

elateko tunelaren lanaz hitzegiten denean, kontutan hartu behar da obra honek bi tunel eta errepidearen trazatu berria dituela bere baitan.

milioi pezetakoa da eta Auxini, Potasas de Subiza, S.A. eta Lain enpresek osatutako elkartearen esku dago. Mendiaren bi aldeetatik zulatzen ari dira eta Nafarroako Gobernua dioenez, datorren abuztuan elkartuko dira bi zuloak. Aldi berean, Arraizko Bentak eta Zozia arteko errepidearen hobetze lanak daude, 13,2 kilometrotan

eginen direnak 5.319,6 milioi pezetako aurrekontuarekin. Lan hau bertze lau sailetan banatua dago (1.193 metro izanen dituen Almandozko tunela barne) eta bakoit-



213 MILIOI PEZETA ERABILIKO DITU NAFARROAKO GOBERNUAK MENDI URRADURAK MOLDATZEKO ETA ARBOLAK SARTZEKO.

TESTUA
AITOR AROZENA
ARGAZKIAK
KARMELE TOLOSA

zean enpresa ezberdinak ari dira. Zozaia eta Mugairi arteko karreteraren hobetzea eta NARBARTeko bariantea bertze baterako utzi dira.

INGURUGIROA KALTETUA

Tamaina honetako lanek noski, begibistako kaltea sortuko dute bazterretan. Desmonteak eta ebakiak izugarriak dira. Hori moldatzeko bertze proiektu bat dago, 213 milioi pezetaren truke berlandatzeaz arduratuko dena. Ez da hori arazo bakarra, ordea. Zozaia zubi erromantikoa berriki bota egin dute. Oronoz-Mugairiko iturria ezzen proiektuan ageri eta lurreratzeko puntuan egon



Datorren urteko abuzturako espero dute Belateko bi aldeetako zuloak elkartzea

zen. Florentino Goñi, Oronozko alkateak geldiarazi zituen lanak, berak dioenez "bortzehun bizilagun eta enpresa haundi bat urarik gabe uztea aski gauza larria baita".

Ekologi arazoei dagokienez, beranduegi izan baino lehen, eskualdeko Ingurugiro taldeek obren segimendua egiteko komisio bat eratzeke deialdia luzatu dute.

Badira moldatu gabeko bertze arazo batzuk. Almandozko Mendiola auzokoak kexu dira. Errepide berria ia bertatik pasatzen bada ere, proiektuan ez da beraientzat sarrera irteerarik ageri eta orain arte bezala, San Blasera joan eta karretera zaharretik Almandozera joan beharko lukete. Eta neguan arazoak sortzen ahal dira, elurra kentzeko makinek ez baitute seguraski orain bezala lan eginen karretera zaharrean. Bertzalde, lur-desjabetzeengatik ordainduko den diru kopurua argitu gabe dago oraindik, Mendi Zerbitzuak ez baitu

egina arbolen balorazioa egin esperoan.

ISTRIPUAK MURRIZTU, JOAN-ETORRIA ERREXTU


Alde positiboari begiratu, ordu laurden gutiago beharko da Iruñera joateko eta Belateko kurbak saihestuko dira. Honek, joan-etorria errestuko du. Beraz, ostu-jatetxe edo turismoarekin lotutako negozioendako mesede izaten ahal den neurri berean kaltegarria izaten ahal da komertzioentzat. Bertzalde, azken urteotan hain ugariak diren kamioi istripuen kopurua jeitsiko da seguruenik, gehienak malda eta kurba itxien ondorioz, frenorik gabe gelditzen baitzi-

ren. Denbora baterako lanpostuak ere sortu dira. Tunetik Mugairi bitarteko obran 200 langile ari dira, horietatik 95 bertakoak. Belateko tunelean eta tuneletik Iruña aldera ari direnak aldiz, kanpotarrak dira ia guztiak. ■



Eva LERTXUNDI

Almandozko Marin zubiko baserrikoa



«Tunela egitean kamioiak ez dira frenorik gabe geldituko»

■ Nola doa Belateko tunelaren lanak?

□ Lan aunitz egiten ari dira eta langile aunitz daude. Igual mantsoxo ari dira, baina badoazi aitzinet.

■ Tunela egin ondotik, zure etxe inguruan gertatzen diren istripuak gutxituko dira?

□ Ez dakit, egia erran. Niri langileek hemen zubi berri bat egin behar dutela erran didate eta gaur egungo Maringo zubia libre geldituko omen da. Kurban behiti erortzen diren gehienek problema frenorik gabe geldi-

tzea izaten da eta tunela egiterakoan ez da hori pastuko. Orain ere badira indikadoreak, bainan...

■ Zenbat istripu izan dira aurretik zuen etxe inguruan?

□ Aunitz, berriki bat gana da eta urtero aunitz izaten dira. Guk ahal dugun laguntza eskeintzen dugu. Anbulantzia, guardiazibila eta ahal den guztia deitu. Telefonoa erregalatu ziguten eta orain aberiak dituzten kamionero aunitz etortzen dira hemendik deitzera. Horrelako fakturak ailegatzeko dira gero...

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.850 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
mele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
tor Arozena, Joxemanuel Iri-
goien. **Erredakzio taldea:** Pe-
llo Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.
Berriemaileak: Joseba Azpi-
roz, Esteban Arozena, Juana
Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello
Etxegia, Txema Urroz, Patxi
Otxandorena, Daniel Martirena,
Ixabel Maia, Josune Etxebe-
ste, Pablo Mendiburu, Joseba Iga-
rabide, Alizia Olaizola, Margari
Etxenike, Koro Irazoki, Mixel
Gerendiain, Jacqueline, Marta
Iturria, Oskar Txoperena, Al-
berto Sansiñena, Pello Apeze-
txea, Aitor Arozena, Kristina
Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE
Nafarroa, Patxi Lasa, Josetxo
Susperregi.
Inprimategia: Gertu (Oñati).
ttipi-ttapa ez du bere gain
hartzen derrigorrez, aldizkarian
adierazitako erranen eta eritzien
erantzukizunik
Erakunde Laguntzaileak:
Bera, Leitza, Goizueta, Areso,
Baztan, Urdazubi, Zugarramur-
di eta Sarako udalak, Bor-
tzirietako Euskara Mankomuni-
tatea, Malerrekako Zerbitzu
Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEKO GAIA

Emakumeak eta ehiza

Arantzan ehiztaria izatea ez da batere gauza arraroa



Maritxu LARRETXEA
Arantzako etxekoandrea

Ni ez naiz ehiz-
taria baina sen-
arra bai. Eta

Arantzan ehiztaria izatea ez
da batere gauza arraroa, be-
harbada, arraroena ehiztaria
ez izatea da. Beti ere gizo-
nezkoei buruz ari naiz, jakina.
Bera usoetan eta oilagorretan
ibiltzen da, eta orduan, urri-
roa eta heldu den hilabetea
furi-furikoak dira beretzat.
Bertze ehiztarien gisara,
bakaziotako egun gehienak
ere sasoi honetarako gorde-
tzen ditu, eta uso-pasako egun
onak baldin badira behinpin,
ez pentsa etxean gelditzeko
astirik hartzen duenik.
Ehiztarien emazteoi nolako
papera tokatzen zaigun?
Ez dakit bada. Gure kasuan
haur ttikia dugunez, bertzela
ere etxean gelditzea tokatuko
litzaidake. Halere, hori bai,
egia da bakazioei dagokionez
ez zela gauza bera izanena bera
ehiztaria ez izanez gero.

Igandetan arratsa arte joaten delarik, ez da gauza bera



Eugenia ELIZONDO
Berako etxekoandrea

Ez dakit ehizia-
ren kontua hau
bizioa den edo

beharbada afizioa? Afizioa
behinpin seguru badela. Nere
senarrabasadetara joatenda,
ez da usoetan ibiltzen. Nor-
malean, dena den, Beran ber-
tan aritzen da eta kanpora ez
da aunitz joaten. Hamabortz
egunetik egiten dituzten ba-
tidak Beran, eta orduan, he-
men ibiltzen da. Hortaz, ez
du bakaziorik hartzen ehizi-
rako espreski. Gainera, bere
kontura ari denez lanean,
eguraldi ona denean probex-
ten du, eta aire.
Igandetan berriz, eguerdikoz
etortzen baldin bada berdin
zait. Goiza aisa pasatzen zait.
Bainan arratsa arte joaten
delarik, ez da gauza bera.
Baditut alabak eta beraiekin
ateratzen naiz, baina ez da
gauza bera. Bera etxean da-
goenean salda desberdinak
egiten dira.

Aurpegi arraroarekin begiratzen duenari kasurik ez diot egiten



Juanita SAN MIGUEL
Goizuetako ehiztaria

Egia da ehiza
gehien bat gi-
zonen afizioa

dela, baina emakumea iza-
teagatik ez dut uste baztertua
nagoenik horrenbeste gizo-
nen artean. Ez naiz emakume
bakarra, gainera. Ehiztari
Elkartean ere lanean aritu
nintzen idazkari bezala eta
errespetu bat irabazten duzu.
Normalean ez dago elkarren
kontra jartzeko moduko pro-
blemarik, garai honetan pos-
tuen kontuekin ez bada. Ma-
txistaren bat edo beste izanen
da baina nik ez diot kasurik
ere egiten eta aurpegi arra-
roarekin begiratzen duenari,
gauza bera. Berrogeitamairu
urte baditut eta 20 bat dara-
mazkit ehizean. Erbi bat edo
beste botatzen dut baina
gehienbat usotara joaten naiz.
Afizioa etxetik haldu zait, ai-
tan aldetikan. Berari lagun-
tzen hasi nintzen alde batetik
bestera eta orain arte. Nere-
tzako ehiza afizio haundia da.
Barkazioak ere urrian hartzen
ditut, pentsa, ehizara joanahal
izateko.

Zati honek
3.000 Pta.
balio ditu

ttipi-ttapa
☎ 63 11 88



KATTU
OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Egunko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



*Zer da neska
batengan gehien
gustatzen
zaizuna?*

Jon SILVEIRA

Bortzirietako Bertso Eskola
Neurria: Zortziko Haundia

*Aurpegi polit, gorri moñoña
ahoaren irrifarra
begi txikien dizdira hori
maitasunaren indarra
ez oso tonta, ez oso pija
nolabait ere zakarra
nik ez dut uste egongo denik
holako neska ederra.*

*Ezer gehiago neska kontuan
zaila egiten zait esan
baina gauza bat aipatuko dut
jende guztian babesan
biak batera gauden batean
egiten bagara etzan
berak 'pontelo ponselo' hori
guztiz kontutan har dezan.*

Bortzirietako Mapa Eskolarra -

Nafarroa Oinez 94

Gai honi buruz zenbait oker entzun eta irakurri dudanez eta ez dudanez irakurri jendeak jakin beharko lukeen hainbat egi, publikoki erreflexio bat egin nahi dut.

Gogoratu nahi nuke 83ko Nafarroa Oinez lema "Euskara Eskolara" izan zela eta garai hartako ikastolen etorkizunari begira aipatzen zena: «*bide horretatik Irakaskuntza Pribatura bideratuak egongo ginateke eta prozesua ez litzateke egokia izanen. Beraz, prozesu honek Eskola Publikora ere iritsi beharko luke...*». Honekin lotuta dauden ondorengo datuak, batzuk badirudi ahaztu dituztela eta beste askok ez dituztela ezagutzen.

1) Datozen urteetan Bortzirietan 12 urterekin eskolarizatuko den ikasle kopurua kuadroan ikusgai. 2) Gau egun, Nafar Gobernuak ordainduak, Bortzirietan 1. mailako zortzi ikastetxe daude eta 2. mailako bat (herrien arteko distantziarik haundiena 15 km). Guztiak D ereduaren irakasten dute, ba-

tek ezik (B ereduaren). Kalitatezko irakaskuntza nahi badugu eta LOGSEko erizpide pedagogikoak aplikatu nahi baditugu ikaslego hau ez genukeela bi ikastetxetan banatu behar pentsatzen dut.

Egoera honen aurrean eta jakinda Nafar Gobernuak Mapa Eskolarra osatu behar zuela, 1991ko azaroan Berako Institutuak Bortzirietako ikastetxeak elkartu zituen bi proposamen lantzeko: bata hezkuntz proiektu bateratua osatzea, neska mutil guztiei kalitatezko hezkuntz koordinatu bat eskaintzeko; eta bestea Bortzirietako Mapa Eskolarraren diseinua egitea, Nafar Gobernuari guztiok aurkezteko. Proposamena egin zenean eta ikastetxeak analizatu ondoren, 92ko otsailean erantzuna jasotzeko asmoz berriz elkartu ginen. Orduan Berako eta Lesakako ikastolek adierazi zuten Proposamen bateratua ez zitzaizela interesatzen eta beraiek bazeukatela

proiektu berezia. Honela, Administrazioak erabakia hartzea onartu zen.

Administrazioak erabaki zuen, eta Bortzirietako Mapa Eskolarra publikoari ezagutzera eman zitzaion. OHOk 8 ikastetxeak Haur Hezkuntz eta Lehen Mailako zentruak bihurtzen dira (12 urte arte) eta Berako Institutua 2. Mailako Hezkuntz Ikastetxea izendatzen da (12 urtetik aurrera). Institutu honetan ESO, bi Batxilergo mota eta Lanbide Heziketarako Ziklo Osagarriak emanen dira, guztiak euskeraz eta gazteleraz. Kontutan hartuz ikaslegoaren urritasuna hezkuntz eskaintza Baztango Institutuarekin osatuko da. Berako Toki Ona institutuan 2. mailako irakaskuntza euskeraz egiten jarraituko dugu, kalitatezko izan dadin lanean arituko gara eta horren froga Unibertsitate-rako Sarrera Frogetako emaitzak izan daitezke: %100ak gainditu zuen.

JOSE MARI IRAZOKI



URTEA	1995	96	97	98	99	2000
D ered.(eusk)	54	58	63	58	58	55
A ered. (gzt)	39	21	8	16	2	7
B ered. (g/eus)	0	13	11	10	11	8

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

☎ Fax Publikoa
☎ Enkuadernazioak
☎ Inprenta lanak • fotokopiak
☎ **%25eko**
deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, ☎ 637030 - LESAKA

zimeldi

ALTZARIGILEA

▲ *Kolorea gustatzen zaizu? sar
ezazu kolore pixka bat zure
etxean altzari tintatuak egiten
ditut*

Deitu eta neurriak hartuko dizkizut

☎ 387017 • ETXALAR


LESAKAKO
ZUBIA

N-121-A



ZUMELDI

ETXALARKO
BENTA



LESACA



EGIN 94-XI-21

«Zubietako biztanlegoa kontutan hartuz guztiz euskalduna dela esan daiteke. Askok gainera euskaldun elebakarrak dira –jubilatua eta adineko jendea gehien bat».

Juainas PAUL
Zubietako Zinegotzia
EGIN 94-XI-21

«Bailara ederrak ditugu, baina hor behiti aldean hondartzeekin egin duten bezala egiten badugu, masifikatu alegia, lau egunetan janen dugu guztia».

Miguel SAN MIGUEL
Doneztebeko alkatea
Ardatza 94-X-14

◆ Denbora libre nola pasatzen duzu?

❖ Ni beti lanean ibiltzen naiz.

◆ Oraingo bizimodua edo lehengoa?

❖ Beti konformatu naiz tokatu zaidanarekin.

◆ Dirua irabazteko modurik errexena?

❖ Lana izatea.

◆ Zein da gehien gustatzen zaizun tokia?

❖ Nere sorlekua.

◆ Zer da zure lanean guttien gustatzen zaizuna?

❖ Lan guztiak gustatzen zaizkit.

◆ Mendi lana ala zerrategikoa?

❖ Mendi lanean rekuerto onak ditut eta orain oso kontent nago.

◆ Negozioa eramateko papeleo sobera dagoela uste duzu?

❖ Bai, egin behar denerako sobera paper bete behar dira.

◆ Inguruan egur onik bada?

❖ Lastima da, gaur egun ez dago baina lehen aunitz izandu da.

◆ Mendiak zaintzen dira?

❖ Ez, eskas. Goitik hasita ez da batere laguntzen.

◆ Neskak gazteak ala afari on bat?

❖ Nire adinekoekin afaldu. Neskak gazteak gazteekin ibiltzeko.

◆ Oporrak pasatzeko leku bat?

❖ Tokiak ezagutzea ongi dago, baina norberaren tokian lasai egoten da.



Jose MITXEO
Saldiasoko zerraria

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

OKANE

Harategi - Urdaitegia

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



III. Perretxiko Ihardunaldiak asteburu honetan

Pilotari buruzko erakusketa zabalik egonen da egun horietan Kultur Etxean

KRISTINA BOAN

Asteburu honetan egitekoak dira III. Perretxiko Ihardunaldiak.

Ortziralean, 2,30etatik aitzinera haurrak 'Mendia' gai bezala hartuta margotzen arituko dira. Arratsaldeko 7,30etan Ehizi eta Arrantza elkartean 'Onttoak sailkatzeko kontutan hartu behar diren ezaugarriak' gaiaz arituko da Jose Manuel Lekuona. Larunbatean, Goizeko 8etan mendi irteera izanen da perretxikoak biltzeko. Arratsaldean berriz goizean bildutako perretxikoak sailkatuko dira Aranzadiko partaideek gidaturik. Arratsaldeko 7,30etan ontto eta perretxikoak hobe ezagutzeko mahai-ingurua izanen da Iamotenean eta igandean, haurren marrazkiak eta bildutako perretxikoen erakusketa izanen da Altzateko frontoian.



Lurraren Egunak jende aunitz agertu zen eskulanak ikustera. Gasna lehiaketan Isidro Ariztegi etxalartarrak irabazi zuen. Arg.: AITOR

Itoizko urtegiaren aurkako mozioa onartu zuen udalak urriaren 24ko batzarrean

Itoizko urtegiaren aurkako koordinadorak aurkeztutako mozioa onartu zen azken udal batzarrean. Mozio honek aldeko 4 boto izan zituen (HBko 2 eta EAko 2), Herrialde taldeko 4 zinegotzien abstentzioa eta EAko baten kontrako botoa.

Herrialde taldea abstentitu zen, beraiek lortutako informazioan iritzi diferenteak zeudelako.

Itoizko koordinadorak aurkeztutako mozioan bortz puntu zeuden, horietako bat Eboko trasbasearen aurka agertzea zelarik.

EAko Jose Mari Iratzoki puntu horrekin ez ados, kontrako erabakia hartu zuen.

Bertze puntuetan, Itoizko lanak helburuak argitu artean geldiaraztea eta Itoizko koordinadorari elkartasuna erakustea eskatzen zen.

ttipi-flash

Liburutegian

Euskara mankomunitateak utzitako euskarazko bideoak daude. Edozein liburu bezala, maileguan eramaten ahal dira etxera.

Arin-arin eta jota ikastaroa

Gure Txokoa dantza taldeak helduentzako jota eta arin-arin ikastaroa emanen du asteazken ilunabarretan. Interesatuak deitu 630741 telefonora edo agertu orziral arratsetan Eztegarra frontoira.

Larun mendi taldea

hasi da berriz ere mendian ibiltzen. Igandero goizeko 9etan ateratzen dira ikastolako atletik. Taldea, agertu nahi duenarentzat irekia dago. Igande honetan Iesola-Intzola ibilbidea eginen da eta hurrengoan Atxuria.

Behobia-Donostia

Hamar bat beratar dira hogeikilometro inguru duen laisterketa honetan parte hartuko dutenak

KLOSKA

Legia 11 - 63 06 64 **BERA**

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Herriko Etxeko Plaza - BERA

ANSONEA

JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • **BERA**

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa

Altzate 28 • **BERA**



Beti Gazte elkartearen Argazki lehiaketa martxan

Azaroaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira laugarren edizio honetarako lanak

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak antolatutako argazki lehiaketaren laugarren edizioa martxan da. Bertan parte hartu nahi duten argazkilariek azaroaren 15a arte dute beraien lanak aurkezteko (bakoitzak hiru gehienez). Lanak, zuri-beltzean edo kolorez egiten ahal dira edozein tamainan, beti ere 30x40 zentimetroko kartulina batean paratuta.

Lanak presentatzeko, argazkiaren gibelkaldean lanaren izenburua eta bertze sobre batean, egilearen izena, helbidea, telefonoa eta lanaren izenburua adierazi beharko dira, honako helbidera bidaliz: Beti Gazte, Beheko Plaza 9, Lesaka.

Lehen saria 20.000 pezetakoa izanen da, bigarrena 15.000koa eta bertze horrenbertze emanen zaio kirol argazki onenari. Argazki erakusketa hilaren 20tik 27ra egingen da.



Argazkia: AITOR

San Fermin Jubilatuko elkartearen eguna ospatu zen urriaren 23an. Jan, edan eta dantza egiteaz gain, solasteko denbora izan zuten.

Itoizen aurkako mozioa ez zuen onartu udalak

Itoizko urtegiaren aurkako koordinadorak aurkeztutako mozioa ez zuen udalak onartu, PNVk kontra botatu baitzuen. Alderdi jeltzalearen erranetan, "zenbait puntu onartzeko modukoak dira", baina mozio guztia osotasunean botatu behar zenez,

kontrako botoa eman zuten.

Alkatearen arabera, akordioa prentsara biddaltzea eta horregatik ordaindu behar izatea zioen puntuarekin ez zeuden ados eta hortik kontrako botua. EA eta HBko zinegotziak mozioaren alde agertu ziren.

Iñaki eta Patrizio, urtebete gartzelan

Joan den urteko urriaren 24an atxilotu zituzten Iñaki Fagoaga eta Patrizio Goienetxe lesakarrak eta geroztik estatuko kartzeletan daude. Urteurrena gogoratzeko enkartelada burutu zen plazan, Amnistiaren aldeko batzordeak deituta.

ttipi-flash

Liburutegian

Euskara Mankomunitateak utzitako euskarazko bideoak daude. Edozein liburu bezalaxe, maileruan eramitten ahal dira etxera.

Xanti Lekuberria

31 urteko gazte lesakarra moto istripuz hil zen urriaren 23ko arratsean Irun-go Arretxeko gainean.

Yoga ikastaroa

ortzegunero burutuko da arratseko 8etatik 10etara Alondigako bigarren solairuan. Irakaslea Patxi Txokarro izanen da. Apuntatzeko deitu 637080ra (Ixabel).

EGA prestatzeko

aukera dago Bortziritako Euskaltegian, egunero 2 orduz edo larunbatero 4 orduz. Interesaturak 637796ra deitu.

Alkaiagako argiteria

egiteko lanaren arduraduna Virgilio Musgo ingeniaria izanen da. Hirurteko plangintzaren barne dago lan hau.

**KOXKILA
OSTATUA**

*Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin*

Zarandia 4 - LESAKA

XATURETXEA



Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

LORA DENDA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EKAITZA CAFE
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

EROSLE
LESAKA

Kalitate-prezio arteko
orekarik hoberena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



'Euskararen Astea' izeneko kultur ekitaldiak, ortziral eta igandean

Nafarroako Gobernuak ehuneko 70a ordainduko du eta udalak berriz, gainerako 30a.

PELLO ETA ALBERTO

Aurten ere antolatuta ditu Euskara Batzordeak kultur ekitaldiak. Azaroaren 4an bi diaposibibak emanaldi eskeiniko dizkigute Iñaki Ezeizak eta Luis Tobiasen, bakoitza ordu erdikoa. Irundik Kantantxurainoko mendi bizikletaz burututako ibilaldia agertuko digu lehenbizikoak; asfaltatik heldu diren Cañadas reales edo Artalde-
rentzako Errepideak da bigarren gaia. Diapositiba emanaldi hauek eskola zaharretan, ortziralean 7etan izanen dira. Igandean Popi eta Zaratrako pailazoak izanen dira herriko plazan, 5etan. 90.000ko kostua Nafarroako Gobernuak eta Bortzirietako Euskara Man-



Larraburuako saihesbidean aldaketa batzuk egin nahi ditu udalak

komunitateak ordainduko dute, % 70 eta 30.

Euria Ustegietako igandean

Urriko hirugarren igandea bustia izan genuen, bai gaez bai

egunez. Euria etorri zitzaigun bisitari, bertze aunitz bisitariri etortzeko gogoaz oztapatuz. Gaupasako gastuak ordaintzeko hainbertze jende bildu zen, hala ere.

Larraburuako saihesbidea

egin bai, baina baldintza eta aldaketa batzuekin. Hori pentsatzen du Udalak. Alde batetik, Gobernuak lehengo bidea zaintzen

segitu beharko luke, karrikan barrena doaiena alegia; saihesbidearen zabalera, bertze aldetik, oraingo Larraburu ondoko sarrearen neurriari egokitu behar zaio. Ikusi beharko ea Gobernuak onartzen dituen baldintza horiek.

Difuntu gehiago

gogoratuko ditugu aurten. Domisaindu eta Animen eguna inguruan egiten den hildakoen oroitzapen berezia aurten zabalagoa beharko du izan, joandakoak gehiago direnez gero. Aitzineko Domisaindutik honat 18 herritarren hileta elizkizunak egin ditugu. Normalean, berriz, bederatzi edo hamarrenak izaten dira.

SASKI
OSTATUA
LESAKA

BEREAU
jatetxea
Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 637382 - LESAKA



«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR


HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR
JATETXEA
© 635290 • ETXALAR

ALBARRATETXEA
JATETXEA
HARAGI ETA ARRAINETAN
ESPEZIALIZATUA
Erreserbak egiteko deitu 627637 Ora
Antoiu 26 • LESAKA



Erabaki interesgarria hartu zituen udalak azken batzarrean

Itoizeko urtegiari buruzko idatzia eta Elkarriri 25.000 pezetako dirulaguntza ematea onartu ziren, bertzeak bertze

OSKAR TXOPERENA

Udaletxetik heldu zaizkigu oraingoan berri gehienak, joan den astean izan zen hila-beteroko batzarra eta. Bertan hartutako zenbait erabaki interesgarri aipatuko dugu.

Hiru baserri moldatzeko baimena eman zuten. Mendibil eta Loikobordan teilatuak berritu behar dituzte eta Bentatxon, berriz, etxe osoa.

Harrobiari utzi beharreko terrenoaren erabilerarako baldintza edo kondizioak ere onartu ziren: Harri metro kubiko bakoitzeko 11 pezeta ordaindu beharko dio herriari eta, noizbait hasten bada behintzat, frontoia egiteko ematen ahal



Santu Guzien eguna pasatuta hasi behar dute kanposantuko bideak moldatzen
Argazkiak: OSKAR

dituen material guztiak dohainik emanen ditugainera.

Azkenik, Itoizeko urtegiari buruzko idatzia eta Elkarrirentzako dirulaguntza onartu ziren. Lehendabizikoa, Itoizeko koordinakundearen aldeko jarrera

agertzen da, urtegiaren lanen gelditzea eskatuz bidenabar. Bertzalde, 25.000 pezetako dirulaguntza eman zitzaion Elkarriri.

Honetaz gain eta Elkarrri aipatu dugunez, pake konferentziaren kanpaina hasi berria

duela erran beharko. Abudo bidaliko omen zaizkio gutunak, sortez aukeratutako 100 igantziarrei, Euskal Herrian bizi dugun gatazkari buruz batean iritzia bilera batean eman dezaten.

Kultur Egunei bu-

ruz, hurrengoan erran beharko zerbait, berri hauek idazterakoan burutzeke baitaude oraindik. Dena den, kultura alde batera utzi gabe, Igantziko koroa Leitzara azaroaren 19an joanen dela erranez akautuko dugu.



Aitzinera doazi Igantziko farmazia izanen den lokala prestatzeko lanak

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ZALAIN
J A T E T X E A
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa
63 09 67
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

LABE ZAR
631076 • BERA

KOXXKONTA
Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

INAKI ITURRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Instalazio zaharren berritzeak
PORTERO AUTOMATIKOAK
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Jauregieta 12
635028 - 635246
31760 ETXALAR
Curtidores 5 - 1. ezk.
631076 - 631076
20300 IRUN




Kultur Astea azaroaren 11tik 13ra burutuko da

Arantzako Euskara Batzordeak lehen aldiz antolatu duen ekitaldi honetan, diapositibak, pailazoak eta zanko tailerra izanen dira

GARBINE ETA ELIXABET

Aurten lehenengo aldiz Arantzako Euskara Batzordeak Aste kulturala antolatu du, azaroaren 11, 12 eta 13an izanen delarik.

Egitarauari dago-kionez, ortziralean, azaroak 11, arratsaldeko 7etan eskolan mendi bizikletari buruzko diapositibekin emanaldia eta hitzaldia izanen da. Bi diapositiba emaile izanen ditugu, bat Iñaki Ezeiza 'Irun-Candanchu' ibilaldiaz ariuko dena eta Luis Tobias 'Cañadas Reales' (aspaldiko artaldean bideak, alegia) ibilaldia eskeiniko diguna. Azaroaren 12an, larunbata, arratsaldeko 4etan fron-



Xorroxin irratiares eskutik zenbait irratsaio ematen ari dira eskolako neska -mutikoak

Arg.: ARTXIBOA

toian 'Hortz muga' zanko tailerrarekin bi orduz zankoetan ibiltzen ikasteko aukera izanen dute animatzen direnak. Azaroaren 13an, igandea, eguer-

diko 12etan eskolan, mendiko ibilaldiari buruz proiektzio eta hitzaldia izanen da, Joxe Mari Oñate mendizaleak 'Everest 93' izenburupean eskeinia.

Gimnasia ikastaroa

Urriaren 25ean Jubilatuentzat gimnasia ikastaroak hasi ziren eskolako gimnasioan. Oraingoan, 20 pertsonen

izena eman dute eta astean ordu bat t'erdiz ariuko dira. Jubilatuek ez ezik bertze adineko jendea ere ari da.

Eskolako haurren irratsaioak Xorroxinen

Joan den astean eskolako haurrak egunero goizean bi orduz irrati saioan ari ziren, Xorroxin irratiares eskutik eta Joxe Ramon Amoros irakaslea eta korrespontsala laguntzaile zutela. Bertan eskolako neska-mutiko guztiek parte hartu zuten, baita ttikienak ere.

ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak



ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 Tfnoa: 637034 - LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

ttipi-ttapa

5.850 harpidedun
20.000 irakurle



Etxalartarko taldeak irabazi zuten II. futbol-sala txapelketa

Finalean, 6-5 irabazi zioten Sunbillako taldeari jendez gainezka agertzen zen frontoian

JOSUNE ETA IXABEL

Urriaren 23an jokatu zen II. futbol-sala kopa txapelketaren finala eta joan den txapelketan bezalaxe arrakasta haundia izan du. Badirudi kirol honek jende ugari mugitzen duela. Elizondoko BKZ eta Legasako Xanpalek hirugarren eta laugarren posturako jokatu zuten, elizondotarrak 5-4 irabaziz. Finala, iazko berbera izan zen, Sunbilla eta Etxalarren artean. Eta txapelketa ere iazkoa, Etxalar. Halere, hasieran 5-0 irabazten jarri baziren ere, sunbilla-darrak haserretu eta erre-montada polita egin zuten, nahiz eta bukaran 6-5 galdu.

Giroa eta jendea



Futbol-sala txapelketako aurtengo finalistak, iaz bezalaxe Sunbilla eta Etxalar taldeak izan ziren

majo etorri zela erran behar, batez ere herrikoak eta Legasakoak.

Gai berarekin segituz, aipatu behar da aurtengo ligatxapelketan parte hartzeko inskripzio epea zabalik dagoela hurrengo abenduaren 1a arte. Parte hartu nahi duenak dei dezaiola Mikel Maiari honako telefono honetara: 451664.

Ikastaroak hasi dira

Hasiera eman zaie dagoeneko EPak antolatutako eskulangintza eta jostungintza ikastaroei. Ikastaro hauek goiz eta arratsaldean ematen dira, Ulibeltzak elkartearen. Ikastaro hauek apirila arte iraunen dute.



ttipi-flash

- ❖ **Udazkeneko Bira**
Azaroaren 6an, arratsaldeko 5,30etan Ortazar fanfarrea arituko da.
- ❖ **Idazkaritzako**
ordutegi berria arratsaldeko 4etatik 6etara izanen da. Idazkaria berriz, M^a Jose Larraioz.

NEKAZARITZAKO

PRESTAKUNTZA

DONEZTEBEN EGINEN DIREN IKASTAROAK

IKASTAROAREN IZENA	ORDUAK	HASIERA	BUKAERA	ZEIN EGUNETAN
1.- ESNEKI-GOXOGINTZA	40	Azar. 22	Abend. 22	Astearte-Ortzegunak (arratsaldean)
2.- FRUITONDOEN KIMATZEA	40	Azar. 4	Abend. 3	Ortizal-Larunbatetan
3.- MEKANIKA-SOLDADURA II	40	Azar. 17	Abend. 2	Astelehen-Astearte Ortzegun-Ortizal (arratsaldean)
4.- AHATE GIZENTZEA	40	Abend. 15	Abend. 21	5 egunez

Informazioa eta izen emateak 27 80 11 telefonoan • **ITG**



Gipuzkoar eta nafarren arteko aizkora apustua Feria egunean

Euskalerriko aizkolari txapelketaren finalean aritu ziren sei aizkolariak arituko dira arratsaldeko 5etatik aitzinera

TXEMA ETA KARMELO

Feriak gainean ditugu eta urteroko egitarauarekin batera, ekitaldi berxi pare bat izanen dira azaroaren 18an.

Alde batetik, Nafarroako herri kirol federazioak udalaren laguntzarekin antolatuta, aizkora apostuederra ikusteko parada izanen da arratsaldeko 5etatik aitzinera. Bertan, azkeneko Euskalerriko txapelketaren finalean aritu ziren sei aizkolariak arituko dira, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko norgehiagoka eginez. Lehen proban nirikoteak elkarren kontra arituko dira, aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko ebakiz. Bigarren proba kanaerdiko bat zeinek azkarrago moztu izanen da. Hirugarren proban, Larretxea eta Olasagasti arituko dira elkarren kontra, zortzi kanaerditan. Azken proban, Mingia eta Nazabal nafa-



Azaroaren 18an ospatuko den feria egunean giro euskalduna izatea nahi da

Argazkia: Artxiboa

rrak, Erasun eta Arrospideren kontra arituko dira, 10 kanaerdiko txanda librean nork lehenago moztu.

Euskal tokia

Bertalde, Langarra Euskara taldeak proposaturik feria egunean toki euskaldun bat eratzea onartu zuen udalak. Elizataria, plazoleta eta horiek elkartzen

dituen Santa Luzia karririkaren zatia izanen da toki hau eta bertan paratuko diren saltzaileak euskaldunak izanen dira. Dena den, pankarta eta paperen bidez adierazia egonen da. Feriari euskal kutsua eman nahian egin da proposamen hau, azken urteotan giroa erdalduz joan baita. Giro

euskaldun hori indartzen laguntzeko bertsolariak ere izanen dira ferietan. Eguerdiko 12etan Bordatxo ondoan, Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso arituko dira.

Gainerakoan, feria egunak ekartzen duen giroa bizi ahal izanen da Doneztebeko karrketan hilaren 18an.

ttipi-flash

Telebista kate pribatuak

ikusteko paratutako antena errepetidorea ordaintzeko 853.530 pezeta ordaindu du udalak. Bertze 487.140 pezeta Sunbillako udalak ordaindu ditu.

Zinea

Iazko kontuen berri eman du udalak. 1.232.381 pezetako defizita izan zuen zineak azken denboraldian. Diru sarreak 1.832.700 pezetakoak ziren bitartean, gastuak edo irteerak 3.965.081 pezetakoak ziren. Hau dela eta, udalak defizita ahalik eta gehien murriztea eskatu du.

Jose Ignacio Zabala

zinegotzia izanenda Union Doneztebarrako ordezkaria Zerbitzu Mankomunitatean.

TABERNA

ETXEA

FERIETAKO astean zehar, Azaroaren 14tik 19ra
ESKEINTZA BEREZIA daukagu

Mantak, Franela maindireak, Koltxak, Berokiak, Txaketoia,
Gabardinak, Jertseak, Gonak, Atorrak...
Baita gazte eta haurrendako arropa ugari ere, aukeran

Merkatarien karrika 12, Tfnoa: 45 00 07 • **DONEZTEBE**

325 lagun Arkupeak elkarteak antolatutako gimnasia ikastaroetan

Benidormetik etorri berriak dira azaroaren 16tik 30era Torremolinosera joateko idea dute jubilatutako elkarteak

TTIPI-TTAPA

Inguru guztiko 325 lagun izena eman dute aurtengoan Arkupeak jubilatuen elkarteak antolatutako gimnasia ikastaroetan.

Horietatik 127 Malerrekakoak dira, 15 Legasakoak, 12 Sunbillakoak, 74 Bortzirietakoak, 19 Urdazubikoak, 21 Leitzaokoak eta 57 Baztanakoak.

Ikastaroaren iraupena 6 hilabetekoa da.

Bertzalde, elkarteak ez dira bidaiak egiten aspertzen. Berriki Benidormen 104 lagun egonak badira ere, bertez taldeetako batek azaroaren 16tik 30era Torremolinosera joateko asmoa du. 16an autobusean joan dira Gasteizera eta bertatik hegazkinean abiatuko dira Malagara. Bi astez Torremolinosen egon dira hiru izarretako hotel batean. Ongi pasatuko dutela ez dago dudarik.



Gimnasia ikastaroan izena eman duen jende pilarekin gustora daude Arkupeak elkarteak arduradunak

Arg.: Artxiboa

Hiru ikastaro martxan Donamarian

Aurtengoan zer bait ikasteko izugarritzko gogoia erakutsi dute donamariatarrek eta aukeran jarri dizkioten ikastaroetan jende aunitzek, inoiz baino gehiagok, eman du izena.

EPak antolatutako eskulangintza ikastaroan adibidez, 24 lagun ari dira. Lehen al-

diz apuntatu direnak asteazken eta ortzegunetan ari dira, arratsaldeko 3etatik 5etara. Bertzalde, Ainhoa eta Josuneren trikitixa eskolan 6-7 haur ari dira. Azkenik, euskara ikastaroetan ere bertze horrenbertzek eman dute izena, gehienak gurasoak.

Antzerkia eta bertso afaria Urrotzen

Joan den larunbatean, urriak 29, antzerkia eta bertso afaria izan zuten Urrotzen, Euskara Zerbitzuak eta Udazkeneko Jirabiraren artean antolatuta. Bertso kantari Jon Sarasua eta Xabier Amuriza izan ziren. Antzerkiak bezala giro berezia sortu zuten.

ttipi-flash

Legasako

Ierdi ingurura doan bidea moldatzeko 11 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak. Honela, oihan lanak hobe egiteaz gain, bordetara ailegatzea errexago izanen da eta suteetan sua mozteko balioko dute pista honek.

Antzerkia Aurtizen

'Bazter utzitako panpinaren istorioa' Iruña Pequeño Teatro antzerki taldeak eskeini zuen Aurtizko pilotalekuan, Nafarroako Gobernuak antolatutako Udazkeneko Biraren barnean.

EPA ikastaroa Urrotzen

Hamairu lagunek eman dute izena Urrotzen EPAk antolatutako eskulangintza ikastaroan.

PIKABEA BOUTIQUE

UDAZKEN eta NEGUKO MODA

GIZON, EMAKUME eta GAZTEENDAKO

Berokiak, Trenkak, Trajeak, Puntuzko Arropak, Jakak,

Atorrek, Jertseak, Pitilloak...

Behar duzun guztia

Karrika Nagusia 5 (Eliza ondoan)

© 450207-450151 (etxekoa)

DONEZTEBE

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAEN

ttipi-ttapa

5.850 harpidedun
20.000 irakurle



GAZTANDEGIA

Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda

Tfnoa: 45 08 62

SUNBILLA



Aurtizko bestak, azaroaren 10etik 13ra San Martinen ohoretan

Bertzalde, bi udal langile Aurtizko zentralaren ondoko iturria moldatzen ari dira

IBAN ISASI

Ailegatu dira hauek ere, aurtengo inguruko azkeneko bestak. Lau egunez luzatuko dira, bainan, aipatu beharrean gaude, besta giroa ez dela hortan geratuko, hurrengo larunbatean, azaroak 19, bazkaria burutuko baitute aurtiztarrek. Besta hauetako egitaraua hurrengoa:

Ortzeguna, 10:

Arratsalde, altxerua eta Paziko zopak Aurtizko ostatuan. Gaez Joxe Angel.

Ortzirala, 11: San Martin Eguna

Goizez Meza. Arra-



Artxiboa

tsaldez, dantzaldia Joxe Angelekin eta gaez Trakets taldea.

Larunbata, 12:

Haur jokoak, dantzaldia Joxe Angelekin

eta gaez Gaubela taldea arituko da.

Igandea, 13:

Pilota partidua (Aurtizko Kepa Leiza eta Unai Apeztegia, bertze bikote baten kontra). Bertsolariak. Dantzaldia Joxe Angelekin.

Bi langile udalarentzat lanean

Herrian egin beharreko zenbait lan burutzen ari dira udalarentzat, INEM erakundearekin sinatutako akordioaren ondorioz. Momentuz, Aurtizko zentralaren ondoan dagoen iturria moldatzen ari dira, teilatuaren zurajea nahiko hondatua baitzegoen.



AMAIUR

• ALTZARIAK •

• SUKALDEAK •

• BAINUAK •

Beti puntaren puntan

LAISTER ZURETZAKO:

- BAINU ALTZARIAK, polit-politik
- ISPILUAK
- AKZESORIOAK
- MANPARAK
- GORTINAK (Loredunak, enkajezkoak...)
- Kolore guzitako ALFONBRAK

Doneztebeko sarreran • ☎ 45 04 00



Hogeitazortzi lagunen eskaera hemezortzi etxebizitzentzat

Hauetatik hemezortzi indibidualak dira, bi bi lagunekoak eta zortzi hiru edo gehiagokoak

ESTEBAN AROZENA

Baton baten eska-kizuna ofiziala izateko dokumenturen bat falta izan arren, esan deza-kegu udala egitera doan babes ofizialeko he- meztortzi etxebizitza- tako baten jabe izan na- hiean hogeitazortzi lagunek izena eman dutela. Hauetatik zor- tzik hiru lagun edo gehiagoko unitate familiarra osatzen dute; bik bikoa eta hemezor- tzi eskakizun indibi- dualak dira. Bide luze honetan beste pausu bat emanaz, udaletxeko iragarki taulan dago aspiranteen zerrenda, herritarren batek zer edo zer alegatu nahi balu ere.



Olinpiadako karretilla karrerak ikusmina sortu zuen Argazkia: Xabier Mikel

Antena-3 ikus daiteke

Olasoko gainean kokaturik dauden bi errepetidoretatik orain arte ikus zitezken bost telebistakatei beste bat

gehitu behar zaie: 29. kanaletik sartzen den Antena-3.

Telebista kateetaz arduratzen den Retevisión enpresak gure zonaldera kate pribatuen seinalerike artzen

ez duenez, zerbitzu hori udalak hartu du bere esku, eta lehen ETB-1, ETB-2 eta Tele5ekin egindakoa orain Antena-3kin egin da.

«Canal +» katea ere instalatu nahi du udalak, baina teknikoek diotenez, herri inguruan dauden errepetidore pribatuekin sortu litezkeen interferentziak ezinezkoa bihurtzen dute oraingoz asmo hori.

Herri Olinpiada

Arrakastatsua inolako zalantzarik gabe Herri Olinpiadaren bigarren edizioa. Emaizetan ez zen inolako sorpresarik izan, eta iazkoaren antzera, Andoni Etxenikek, Juan Tomasenak, Esther Tomasenak, Antxon Rodriguezek, Mikel Elizegik eta Aitor Apezetxeak osaturiko taldeak irabazi zuen aurtengoan ere.



Errepidearen hobetze lanak azkenekotan dira

Beste alde batetik, industrialdeko lanak hasiak dira

JUANA M^a SAIZAR

Egun hauetan asfaltatu eta bazterreko bialatua jartzen ari dira. Zabaleria ederra eta egokia gelditu da orain bainan konponketa horietan pareta berri asko egin dituzte, harri haundi batzuekin gainera. Horiek aproposak dira errekek zeharkatzeko, bainan herriko sarreran ere pareta berri bat egin dute eta itxura txarra dauka.

Denok ikusten ge-



nuen hori eta udale- txéaren ardura zenez, zai egon gara horrer

irtenbide batematen ote zioten. Jakin dugunez, tramiteak eginak daude

eta beste pareta bat manposteriaz egingo omen dute.

Sokatira taldea lanean hasia da. Ea iazko emaitzak errepikatu edo hobetzen dituen

Industrialdeko lanak martxan

Industrialdeko obrak mugitzen hasiak dira. Argi-indarra eta bide aeginak daude dagoeneko. Udaletxeak konkurtora aterako ditu falta diren beste obrak, hau da, ura ekartzea, ura erregulatzeako depositoa egitea eta sare telefonikoa sartzea



'Okile' ezinduen tailerrak bere bigarren urtemuga ospatuko du

Azaroaren 10 eta 11an hitzaldia eta prentsurrekoa burutuko dira Udaletxean



Okile tailerrak bi urte daramazki lanean

JOSEBA AZPIROZ

Okile ezinduen tailerrak bigarren urtemuga ospatzen duela eta, azaroaren 10 eta 11rako ekitaldi batzuk antolatzea erabaki du. Ekitaldiak, honako hauek izango dira:

Azaroaren 10ean, arratsaldeko 4etan, hitzaldi bat emango du Atzegi elkarte arduradunak, udaletxean. Gaia, kolektibo honen barruan azken urte hauetan egin diren aurrerapenak izango da. Azaroaren 11n, eguerdiko 12etan prentsurrekoa emango dute

Udaletxeko batzarre aretoan alkateak, Ongizate Sozialeko zinegotziak, gizarte laguntzaileak, tailerreko arduradunak eta tailerreko langileak.

Ordubietan bazkaria izango da eta bertara, Berako Uxane tailerrekoak ere gonbidatuak daude.


❖ 30 lagun

bildu ziren urriaren 22an Torreako herri afarian, Aresoko Xabier Nieto Baranda presoarekiko elkartzunean. Gorostiza abokatuak bere egoeraren berri eman zuen

Baserritarren Egunean, eguraldi txarrari aurpegi ona

Urriaren 16an ospatu zen Baserritarren bigarren egunak, eguraldi txarra egin bazuen ere, arrakasta handia izan zuen. Aurreko ostiralean irratsaio berezia izan zen: Inaxio Perurenak bideratu eta Xabier Gorritzkoak, Miel Sorobarrengoak, Pakita Soroa-Goikoakoak eta Ana Aienekoak parte hartu zuten. Igandean berriz, 25 baserritarrek beren azienda eta bazkariak erakutsi bazizkiguten ere, euria zela eta batzuk ez ziren azaldu. Hurrengorako, antolatzaileek nola baiteko estalpea jartzeko posibilitatea aztertuko dute, karrapea ez baita lekurik gauzak lasai ikusteko.

Aipagarria izan zen talogile eta artozuri-



Baserritarren Egunaren arrakasta ukazina izan da. Ikusi bestela karrapea Arg.: JOSEBA

tzaileen lana, baita giroa alaitzen aritu ziren trikitalariena ere. Oialden 90 lagun bildu

ziren bazkaltzera. Miel Sorobarrengoak eta Batista Perurena aritu ziren bertso kantari.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32 • Tfnoa: 510086 • LEITZA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305





Baztan ikastolak 25 urte beteko ditu ikasturte honetan

Urte hauetako ibilbidea erakusten duen materiala (argazkiak, bideoak...) bildu nahi dute

JOSEBA IGARABIDE

Baztan ikastolak bere 25. urteurrena ospatzeko zenbaitekitaldi antolatuko ditu ikasturte honetan zehar. Futbito txapelketa eta eskalada ikastaroak martxan jartzeaz gain, abenduaren 2an bertso afari bat ospatuko dute Antxitonean. Eliza-goien, Peñagarikano eta Egañarekin batera bertso eskolakoak ari-tuko dira. Bertze eki-taldi batzuren artean, liburu bat argitaratzeko asmoa ere badute.

25 urte hauetako ibilbidearen argazki eta bideoak ere bildu na-hiean dabilta eta ma-teriale hori biltzeko, azaroaren 7tik 18ra egonen dira parkeko ikastolan, arratsaldeko 5etatik 6etara.

30 milioi pistak moldatzeko

30.695.288 peze-tako aurrekontua izan-nen da Baztango zen-bait pista moldatzeko. Diru horrekin, Iruritik erre-karen ezkerretik doan pista, Arraiozko baserrietarako pista, Erratzuko Etxegaraira eta Urraindik Erratzura doazen pistak, Denda-



la zortzi ordu iraun zuten Francisco Irigoien Otxanaitz baserriko artzaiaren erreskate lanak

Arg.: Diario de Noticias

rieta eta Karakoetxea-ra ailegatzeko bidea eta Larrainerako pista mol-datuko dira.

Dirutza horretatik 25 milioi pezeta Nafarroako Gobernuak pa-ratuko ditu.

Fco. Irigoien artzaia hilik agertu zen Urritzaten

Francisco Irigoien, Otxanaitz baserriko artzaia hilik agertu zen urriaren 19an Urritzateko arroilean.

Itxura batean, ardi galdu baten bila atera zen Francisco eta ingurua ongi ezagutzen zuen arren Urritzate alde horretan arroildu zen. Biharamonean to-patu zuten bere gorpua eta erreskate lan luze batzuen ondotik, heli-kopteroan trasladatu zuten.

Lehendik Urritzate eta Aritzakun inguruan jende guti bizi bazen, heriotz honek ia bizi-lagunik gabe utzi du le-ku hori.

ttipi-flash

Aritzakungo

Itxusia baserri ondo-an ormigoizko zubi bateginean da. Aurre-kontua 222.525 pe-zetakoa da eta drena-je lanak auzolanean eginen dira.

Mokorro

inguruko uso pos-tuetan ehizatze-ko baimena eman du berriz ere Nafarroa-ko Gobernuak.

Usogain-Bagordi

luberriak egiteko bi-garren subentzioa (12.240.549 pezeta) eman du Nafarroako Gobernuak.

Amairuko

eskolako teilatua moldatzeko 456.909 pezetako dirulagun-tza eman du Nafarroako Gobernuak.

Baztan ikastolak

bere 25. urtemuga ospatzeko futbol-sala txapelketa antolatu du 11 eta 14 urte arteko neska-mutikoentzat. Txapelketa azaroaren 6etik aitzinera joka-tuko da. Izen ematea 452448 telefonoan, klase orduetan.



ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak

Juana M. Urrutia

Dantza eta gimnasia ikastaroak hasiak dira Basaburuan

Bertzalde, San Martin eguna besta eguna izanen dute Berroetan

PABLO MENDIBURU

Anizen eta Berroetan urriaren 29an hasi ziren aurtengo dantza ikastaroak. Anizen larunbatetan izaten dira klaseak. Zigan berriz azaroaren 2an hasi beharrek ziren.

Gimnasia ikastaroa

Bertzalde, gimnasia ikastaro bat burutzen ari da Anizen, astelehene-tan eta ortzegutan arratsaldeko 4etan elkartzen dira, oraingoz, hamabortz lagun daudelarik gorputza zauli jaritzeko asmotan.

San Martin Berroetan

Berroetan ohiturari jarraituz San Martin eguna ospatuko dute hilaren 11ean. Honeta-



Elizondoko erresidentziek zenbait materiale eskuratuko dute. Horretarako 10 milioi pezeta eman du Ongizate Sozialerako sailak Arg: ARTXIBOA

rako goizez Meza Santua eta arratsaldean eskolan andreentzat txokolatada izanen direlarik. Seguro giro polita sortuko dela, urtero bezalaxe.

10 milioi Elizondoko erresidentzietarako materiala erosteko

Elizondoko monjek 10 milioitako dirulaguntza jaso dute 'Nuestra Señora del Pilar' eta 'M^a Josefa Recio' erre-

sidentzietarako materiala erosteko. Lehenbiziko erresidentziak 8 milioi jasoko ditu landerariako materiala-

rentzat ea eta 'M^a Josefa Recio' berriz, 2 milioi pezeta, ekipamendu ezberdina eskuratzeko.

ttipi-flash

Helduendako Tenis ikastaroa

azaroaren 9an hasiko da eta ekaina bitarte luzatuko da. Izena emateko epea azaroaren 5ean akituko da, Elizondoko kultur etxean, 10.000 pezetaren truke. Miguel Pruiño izanen da irakaslea.

Kamioia kixkalia

Urriaren 22an kamioi batek sua hartu zuen Almandozko gurutzbidean, arazoa frenoetan zegoelarik. Zeraman fruita guztia kixkali zen.



SOULE

GURUTZE eta HILARRIAK

☎ 45 30 38 ARIZKUN • ☎ 12 35 72 IRUÑA

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



ZURE
ARGAZKIAK
ORDU BATEAN
EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIK

IA 100 URTE KALITATEA ETA
PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

**FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat**

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure
karretek ORDU BATEZ ERREBELATZEN
ditugu "FUJI" kalitatearekin

Sara

Paul Dutournier zenari omenaldia eskeiniko zaio azilaren 12an

Hogoita hamar urtez Sarako auzapeza izan zen eta Euskal Herriko Pottokaren Lagunen elkarteko sortzailea

MIXEL ETA JACQUELINE

Sarako herriak eta Euskal Herriko Pottoken Lagunek antolatzen dute omenaldi bat Paul Dutournier zenari. Paul 1947az geroztik eta hogoitamar bat urtez Sarako auzapeza izan zen eta indar bereziak egin zituen gure mendietako pottoken zein-arazteko. Omenaldi hori azilaren 12an iraganen da eta dudarik ez da egun hortako ekitaldirik ospetsuena goizekoa izanen dela, orduan baita orhoit-harri bat agertuko Sara eta Bera artean Lizuniagako lepoan. Ietan egun hortako partaide guziak bilduko dira bazkaltzeko. Otuntza honetan parte hartzeko xehetasunak galdetu Sarako herriko etxean.



Serge Bats, Kako Goyetche, Sofia Elizalde, Christian Paterne, Henri Dutournier eta Pantxoa Machicote

Pala lehiaketaz zenbait hitz

Polikiroldegikopala lehiaketa urriaren lehenean burutu zen. Kanporaketak hiru sailatan egin ondoren huna

finalen ondorioak zein izan diren.

Lehen maila:

Christian Paterne-Henri Dutournier 45, Kako Goyetche-Sophie Elizalde 32.

Bigarren maila:

Stéphane Barneix-Nicolas Barreneche 45, Alain Lafitte-Alain Albistur 43.

Hirugarren maila:

Jean Yves Zundaj-Joset Zunda 45, Pierre Arotzarena-Philippe

Piguet 32.

Azken partida bukatu eta 30 bat lagun bildu ziren zikiro jate baten inguruan.

Sail berean egonez, erran dezagun laster bertze lehiaketa bat hasiko dela polikiroldegian. Hau "Sarako Izarra pilotak" du antolatzen. 'Joko berri' deitzen den joko hau non eta nola jokatzaren aipatzen ahal dugu larriki: kiroldegia zabaltsun osoa baliatzen da eta ezker pareta batean bezala ezta eskuinaldean paretarik bainan ezkerrean badago taula bat (trinketa batean bezala). Joko hontan binaka aritzen da eta lehiaketan parte hartu nahi duenak lehenbaitlehen izena eman Sarako Izarrari.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile
baimendua



BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

ttipi-ttapa

5.850 harpidedun
20.000 irakurle

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64310 SARA



MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60


Urdazubi

Herriko hiru gazte ikasten ari dira abelzantza ikastaroan

Domisainduko zubian, izugarrizko bisitari pila izan genuen herriko ostatu eta logelak dituzten etxeetan

ALIZIA OLAIZOLA

Abelzantza kurtsoa 94-95 ikastarorat joaten dira herriko hiru gazte. Ikastaro hau Doneztebeko Juansenea etxean burutzen da. Irailaren 22an hasi ziren eta heldu den urteko apirilaren 7an bukatuko dute, hila batean borts egun izanik eta hauetarik batean ateraldia egiten dute zenbait lekuetara. Kurtso hauek baliogarrak dira gazte hauendako. Adibidez, horrela pentsatzen du Jose Mari Maskotenak: “*baliogarra da neretzat, ez genekien gauza aunitz*



Hiru urdazubiar ari dira abelzantza kurtsoan ikasten

ikasten baitugu eta tzen duzu eta honekin ten ahal duzu laboran-
diploma bat errezibituz subentzio gehiago izatza etxean obrak egi-

terakoan edo makinaria erosterakoan”. Aitzineko urtetan hementxo gazte aunitzek egin dute ikastaroa eta bertze batzuk nekazal gestio eta kontabilitate ikastaroa egin zuten orain dela bi urte.

Bisitariz gainezka

Domisainduko zubian bisitari azkar hurbildu zen herrira ostal eta logelak alokatzen dituzten etxe guztiak betez. Sei edo zazpi izan arren, gehiago izanez gero ere beteko zirela aipatzen zuten ostaletako jabeek.

LARUNBATA, AZAROAK 5

JOSE L
ANAYAK

BORDATXO DANTZALEKUAN

DONEZTEBE • NAFARROA

EZKONTZAK

Jose Gabriel Amigorena Agesta eta **Elena Erasun Zoziaia**, Donamaria eta Labaingo, urriaren 29an.

Tomas Martinez Serrano eta **Maria Teresa Garro Martinez**, Aspe eta Leitzakoa, urriaren 8an.

Juan Simon Aizpurua Sarasola eta **M^a Lourdes Torres Gamio**, Garzaron eta Arizkungoa, irailaren 18an.

Fco. Altzugarai Legazkue eta **M^a Isabel Gonzalez Arrijuria**, Sunbilla eta Elizondokoa, urriaren 8an.

Luis Migel Trantxe Garcia eta **Elena Urtasun Lasa**, Elizondokoak, urriaren 14an.

Fco. Jabier Elizalde Etxandi, eta **M^a Teresa Zugarramurdi Darraiza**, Ziga eta Lekarozkoa, urriaren 15ean.

Diego Aixela Zambrano eta **Junkal Vazquez Ezeizabarrena**, Algeciras eta Irungoa, Iturenen, urriaren 20an.

Jose M^a Biurrarena Fagoaga eta **M^a Gloria Bertiz Goizueta**, Bera eta Lesakakoa, urriaren 15ean.

Jose Luis Oskoz Errandonea eta **Ana Isabel Mazizior Zubieta**, Arantza eta Lesakakoa, urriaren 22an.

Rafael Olaziregi Mitxelena eta **Rosa M^a Urkiola**, Berakoak, urriaren 1ean.

Javier Astrain Java eta **Begoña Mazizior Irazoki**, Iruña eta Berakoa, urriaren 8an.

JAIO TZAK

Borja Arregi Muñoz, Doneztebekoa, urriaren 12an.

Andoni Maritorena Ganboa, Doneztebekoa, urriaren 14an.

Liher Etxeberria Belarra, Elizondokoa, urriaren 5ean.

Nerea Etxeberria Oskariz, Elizondokoa, urriaren 8an.

Izaro Bidegain Zubeldia, Arizkungoa, urriaren 8an.

Olivia Onchalo, Sarakoa, urriaren 11an.

Louis Desein, Sarakoa, urriaren 16an.

Miguel Angel Fernandez del Puerto, Berakoa, urriaren 1ean.

Leire Sorozabal Ansalas, Berakoa, urriaren 10ean.

Antonio Prieto del Puerto, Berakoa, urriaren 12an.

Iñaki Sansebastian Torre, Berakoa, urriaren 18an.

Unai Arozena Mariezkurrena, Arantzakoa, urriaren 17an.

HERIOTZAK

M^a Rosario Arruti Etxegoien, Beintza Labaien, urriaren 14an, 59 urte.

M^a Bertiz Gragirena, Beintza Labaingo, urriaren 6an, 85 urte.

Jacinta Eskudero Astibia, Goizuetakoa, urriaren 15an, 101 urte.

Gillermo Gomez Agirre, Leitzako, urriaren 13an, 71 urte.

Julia Baraibar Caballero, Leitzakoa, urriaren 21ean, 94 urte.

Fco. Irigoien Iparrea, Erratzukoa, urriaren 19an, 60 urte.

Esperanza Iribarren Laurenzena, Amaiurkoa, urriaren 7an, 89 urte.

M^a Josefa Larregi Goia, Azpilkuetakoa, urriaren 10ean, 87 urte.

Juana Arratxe Jauregi, Arizkungoa, urriaren 11n, 96 urte.

Josefa Iribarren Urroz, Arizkungoa, urriaren 16an, 78 urte.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,

2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,

4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,

2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,

dekorazio denda bat, supermerkatu bat,

aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,


bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,

hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...

Denetarik gauzarik hoberenak.

Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.

Centro Comercial



**LUIS
MARIANO**

Irun

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi	
zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	109400
Gurutze Gorria	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea	614600
Gipuzkoako ospitala	460299
Erresidentzia	453800
Anbulatorioak	
Irun	630264/621106
Anbulantziak	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka	
(larrialdiak)	(943) 464622
Doneztebe	
(larrialdiak)	171717
FUNERARI	
Doneztebe	637404
Elizondo	580924
Lesaka	637404
Suhiltzaileak	
Oronotz-Mugaire	592255
Garraioak	
Bidasotarra	631150
Baztanesa	580129
Leitzarana	515018
Aberiak:	
Iberduero	450335/450336

III. Perretxeiko ihardunaldiak Beran asteburu honetan

Elizondon egin diren bezalaxe, asteburu honetan egitekoak dira Beran III. Perretxiko Ihardunaldiak.

Egitaraua ortzira-lean, azaroak 4, hasiko da. 2,30etatik aitzinera haurrak margotzen ari-tuko dira mendia gaitzat hartuta. Arratsaldeko 7,30etan Ehizi-Arrantza elkarteak "Onttoak sailkatzeko kontutan hartu behar diren ezaugarriak" hitzaldi interesgarria emanen du Jose Manuel Lekuona adituak.

Larunbatean, azaroak 5, goizeko 8etan



mendi irteera izanena da perretxikoak biltzeko 11ak arte. Arratsaldean espeziak sailkatuko dira Aranzadi zientzi elkarteak partaideen laguntzarekin. Arra-

tsaldeko 7,30etan, biltutako ontto eta perretxikoen ezagutzarako mahai-ingurua izanena da Iamotenean.

Igandean, azaroak 6, Altzateko frontoian

haurren esku lanen eta mendian biltutako perretxikoen erakusketa ikusgai egonen da goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 4etatik 6etara.

"Bake topaketa partehartzaileak" izanen dira larunbatero Xorroxin irratan

Joan den larunbatean hasita, 'Elkarri' elkarrizketa eta akordioaren aldeko giza mugimenduak antolatutako 'bake topaketa partehartzaileak' irratsaio-debateak burutzen ari dira larunbatero Elizondoko Kultur Etxean, eguerdiko 12,30etatik 1,30etara. Xorroxin irratia zuzenean emi-


titzen duen irratsaio bakoitzean zonaldeko 4-5 pertsonen hartuko dute parte eta guztira 150 gonbidapen luzatu dira. Larunbat honetan euskal gatazkaren zergatiak eztabaidatu baziren, hurrengo gaiak hauek izanen dira: azaroaren

5ean 'Giza eskubideak, bizitza eskubidea eta autodeterminazio es-

soak'. 26an, 'Nafarroa'. Abenduaren 10ean, 'Euskara eta euskal kultura' eta abenduaren 17an 'Elkarrizketa ereduak'.

Debatean edozeinek parte hartu ahal du. Xorroxinera deituz edo entzule gisara Arizkunenea kultur etxera joanez.

elkarri



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- ☐ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- ☐ Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- ☐ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

*Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxatu ezazu.
1. kalitateko koltxoia oso prezio interesgarrietan*

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Mikel Mindegia Nafarroako aizkolarien txapela zazpigarren aldiz jantzi du

Berrogeitabortz urte izan arren oraindik sasoi onean dagoela erakutsi zuen Donezteben aizkolari zubietarrak

Urriaren 16an ospatu zen Doneztebeko frontoian Nafarroako aizkolari txapelketaren finala. Final honetan, abuztuan Lakuntzan jokaturako kanporaketan sailkatu ziren bortz aizkolariek hartu zuten parte, hau da, Donato Larretxea, Mikel Mindegia, Antonio Jaunarena, Floren Nazabal eta Antonio Senosiainek. Aizkolari bakoi-tzaklau kanaerdiko, 60 ontzetako lau enbor eta bi oinbiko zituen moztu beharrekoak. Doneztebeko frontoia jendez betea ageri zen proba hasi baino minutu dextente lehenago. Hasieran apostuak Donato Larretxearen aldekoak izan ziren, bera baitzen faboritua, batez ere aitzineko asteburuan Euskadiko txapelketan ikusitakoa ikusita.

Lehenbiziko enbo-



Mikel Mindegia saria jasotzen, Joxelu Retegi Herri Kirol federazioko lehendakaria eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkatearen aitzinean

rretan gogor hasi zen Donato, Mindegia aurrea hartuz. Baina Mindegia bere erritmoasegitu zuen eta laugarren enborrerako segundu bateko aldea atera zion Larretxeari. Hortik aurrera txapela

nork eramanen zuen gari utzi zuen zubietarrak, gero eta alde haundiagoa atereaz. Hirugarren posturako lehian hiru aizkolari ziren. Jaunarena hagitz indartsu hasi zen baina gaizki dosifikatu zituen

bere indarrak eta azkenean bortzgarren postuan bukatu zuen. Nazabalek berriz alderantzizkoa egin zuen, hirugarren akituz. Senosiain laugarren postua eskuratu zuen azken hiru enborretan.

Bote *pronton*

❖ **Baztan**

futbol taldean azken denboraldiko jokalaria onenaren eta goleatzaile onenaren sariak banatu ziren. Jokalaria onena, Juanjo Iturzaeta izan zen eta gol gehien sartu zituen Mikel Garbalena.

❖ **Argazki lehiaketa**

martxan paratu du Lesakako Beti Gazte elkarteak. Edozein gisako argazkiak ametitzen badira ere, urtero bezala, sari berezia izanen du kirol argazki onenak.

❖ **Baztan ikastolak**

bere 25. urteurrena dela eta futbol-sala txapelketa antolatu du 11 eta 14 urte bitarteko Baztango neska-mutikoen zat. Txapelketa azaroaren 6etik aitzinera jokatu da. Izen ematea ikastolako 452448 telefonoan, klase orduetan.

❖ **Goizuetako II. Herri Olinpiada**

burutu zen urriaren 23an, Umore Ona elkarteak eta Gazte Asanbladak antolatuta. Partehartzea haundia izan zen eta ez zen sorpresa haundiegirik izan, iazko taldeak irabazi baitzuen.

ENBORRA	MINDEGIA	LARRETXEA	NAZABAL	SENOSIAIN	JAUNARENA
1. (54 ontza)	1'30"	1'26"	1'52"	1'49"	1'40"
2. (54 ontza)	3'18"	2'59"	3'45"	3'51"	3'36"
3. (60 ontza)	5'42"	5'39"	6'30"	6'47"	6'26"
4. (60 ontza)	8'22"	8'23"	9'22"	9'51"	9'27"
5. (72 ontza)	11'52"	12'07"	13'	14'08"	13'56"
6. (72 ontza)	15'45"	15'49"	16'47"	18'43"	18'14"
7. (60 ontza)	19'06"	19'20"	20'12"	23'10"	22'45"
8. (60 ontza)	22'02"	22'23"	23'14"	26'55"	27'14"
9. (54 ontza)	24'13"	24'40"	25'43"	29'58"	30'55"
10. (54 ontza)	26'04"	26'28"	27'52"	32'34"	33'38"

Hogeitamasei taldek parte hartu zuten 'III. Lera Zakur Laisterketan'

Lesaka eta Sunbilla bi egunez elkartu zituzten ehun zakurrek Beti Gazte elkarteak antolatutako proba berezi honetan

Urriaren 22 eta 23an burutu zen trenbide zaharretik barrena Lesaka eta Sunbilla arteko 'III. Lera Zakur Laisterketa'.

Larunbat arratsaldean Lesakako Bereautik Sunbillarako ibilbidea egin zuten eta igande goizean berriaz, Sunbillatik Bereaura. Guztira 36 taldek parte hartu zuten eta samoyedo, husky eta malamute arrazako ehun zakur inguru izan ziren proban. Ikusten ere jende aunitz egon zen.

Lesakako Beti Gazte elkarteak antolatutako proba honetan es-



Trenbide zaharretik barna ibili ziren lera zakurrak

Argazkia: AITOR

tatu eta Euskal Herri osoko partehartzaileak

izan ziren eta horien artean, Sunbillako Vi-

dal Ibarrek maila polita erakutsi zuen.

Aizkora apostu mundiala

Doneztebeko feria egunean, aurtengo Euskal Herriko aizkolarari txapelketaren errebantxagisakobatik ikusteko aukera izan da. Finalean izan ziren hiru nafarrak (Mindegia, Larretxea eta Nazabal) hiru gipuzkoarren kontra (Arrospide, Olasagasti eta Erasun) arituko dira proba ezberdinetan, arratsaldeko Setatik aitzinera.



INFORMAZIORAKO TELEFONOAK

Malerreka
Euskara Zerbitzua
☎ **451746**

Bortzirietako
Euskara Zerbitzua
☎ **634125**

Leitza-Larraun-Ulitzamako
Euskara Zerbitzua
☎ **504400 • 610636**

Zure abizen euskalduna euskal grafiaz!

Nahi izanez gero, zure abizen euskaldunaren erdal grafia aldatzeko aukera legala badaukazu, bere jatorrizko itxura berreskuratuz.

Honetarako zenbait tramite burutu beharko dituzu eta zure herriko Euskara Zerbitzuaren informazioa eta laguntza edukiko duzu. Horregatik, behar diren urratsak eman ditzazun animatu nahi zaitugu.

AGENDA EGUNEZ EGUN

AGENDA PRAKTIKOA

IKASTAROAK ELIZONDO

► **Bertako historiari hurbiltze etnografikoa.** Arizkunenea Kultur Etxean, azaroaren 21etik aitzinera Mikel Ozkoidi irakaslearekin. Iraupena: 10 ordu. Astelehen eta asteazkenetan, 7,30etatik 9,30etara. Izen ematea: Azaroaren 11a bitarte, 500 pezetaren truke.

BESTAK AURTIZ

► **Azaroaren 10etik 13ra.** Xehetasunak 17. orrialdean.

FERIAK DONEZTEBE

► **Azaroaren 18an.** Xehetasunak erdiko gehigarrian.

EUSKARAREN EGUNAK ETXALAR

► **Azaroaren 4 eta 6an.** Xehetasunak 11. orrialdean.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Urriaren 31tik azaroaren 6ra** Etxalar, Doneztebe, Irurita, eta Goizueta.
► **Azaroaren 7tik 13ra** Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.
► **Azaroaren 14tik 20ra** Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

ERREZETA



Santamaria etxeko ajoarrieroa



Virginia LOIARTE
Santamaria
Jatetxea
• DONEZTEBE •

Osagaiak

- 800 gr. kalitatezko bakailu desmigatua • 300 gr. tomate

```
prejitua • 2 tipula • 4 pikillo piper
```
- 250 z.k. oliba olio • 3 piper berde • 200 gr. ganba zurituak • tabaskoa • baratxuri buru erdi bat •

Prestatzeko manera

Bakailua uretan jarri, gatza

kentzeko behar duen denbora. Ontzi batean olio berotzen jarri eta tipula, piper berdeak eta baratxuriak xehetuak erantsi. Pixko bat bigundu direnean bakailua erantsi (aurrez bakailua xukatu) eta utzi. Eginxea dagoenean, piper gorriak eta ganbak bota, utzi egiten eta ondoren tomatea eta tabasko txorrotada bat (hagitz fuertea dela

kontutan hartuta, neurria norberaren gustora) bota, ongi egin arte. Serbitzerakoan perrexila adaxka batzuekin apaindu eta on egin.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.900 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 142 pzta./kilo
- **Zerramak**: 110 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal
- Extra 600
- 1.koa 570
- 2.koa 540

- Urruxak:** Pzta/Kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 610 |
| 1.koa | 580 |
| 2.koa | 545 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 34.000 Pzta.
- Mestizoak:** urruxak 40.000 eta idixkoak 52.000 pzta.
- **Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoak** 930.
- **Udareondoak** 930 pta.
- **Gereziondoak** 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.
- **Valentziar tipula** zient. 250.
- **Letxuga** zientoa 400 pta.
- **Azelga** zientoa 400 pta.
- **Pepino** sorta 25 pta.

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

❖ Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!



☎ 63 01 55
BERA

Errekalde ostatua

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA



Diamantearen plaza

Mercè Rodoreda
Donostia, Elkar, 1994.
258 orrialde

Katalanez inoiz gehien irakurri den eleberri zoragarri eta hunkigarri hau itxuraz oso ximplea da: emakume gazte bat dugu protagonista, Colometa, neska apala, ahula eta gertakariak zigortua. Berak kontatzen dizkigu bere bizitzako pasadizoak, bere ahotsez, munduaren erdian galdutako emakume honen eguneroko xehetasunen artean bakardadea, maitasuna, heriotza, bizi-beharra aurki ditzakegu. Naturaltasun ia magikoz bizitzaren emozioa transmititzen digu.

1962an argitaratu zen lehen aldiz eta dagoeneko hogeitaz hitzuntzera itzulua izan da.

Liburuok eskuratzeko Bera, Doneztebe, Elizondo, Leitza eta Lesakako liburutegietara joaten ahal zarete.

Azken nobedadeak

Jainko txikia

Aitor Arana
Elkar, 112 orr.

Henry sugaren iltorio miresgarria

Ronald Dahl
Elkar, 110 orr.

Trostan, hegan zein marrazean

Karlos Gorriñdo
Txalaparta, 77 orr.

Burbuila, mila kiloko arraina

Betsy Byars
Elkar, 195 orr.

Sargori

Pello Lizarralde
Pamiela, 101 orr.

Elizen arteko Biblia

Bibli Elkarte Batuak, 514 orr.



Kalea guztiona da

Kurusa
Tafalla, Txalaparta, 1994.
54 orrialde

San Jose auzoko hurrek parkea lortzea erabaki dute. Horretarako eskura dituzten bide guztiak jorratuko dituzte: kontzejua, prentsa, zinegotziak... Baina gauzak ez dira beti oso argiak izaten. Zinegotziak interesa haundia azaltzen du, baina jakina, segituan izanen dira udal hauteskundeak...

Caracasen auzoko haur batzuen egiazko istorioan dago oinarrituta nahiz eta oraindik jolasparikerik lortu ez duten.

AGENDA EGUNEZ EGUN

ERAKUSKETAK

BERTIZ

► Urriaren 12tik azaroaren 6ra.

Bertizko jauregiko erakusketa aretoan, 'Pirineoko zuhaitz eta zuhaixkak' eta 'Paisaiak' erakusketak.

ELIZONDO

► Urriaren 17tik azaroaren 5era.

Arizkunenea Kultur Etxean, Baztango Balleko Etxearen margo lanen erakusketa. Lanegunetan arratsuko 7etatik 9etara.

III. PERRETXXIKO IHARDUNALDIAK

BERA

► Azaroaren 4etik 6ra. Xehetasunak 9. eta 25. orrialdeetan.

ARGAZKILARITZA

BAZTAN

► Argazkiak Berreskuratzeko II.

Kanpaina. Argazki biltzea eta originalen erreprodukzioa Urrian. Erakusketa Azaroan. Informazioa Arizkunenea Kultur Etxean.

OMENALDIAK

SARA

► Azilaren 12an

Jean Paul Dutournier zenari omenaldia. Egurdiko 1etan oroigarri bat paratuko da Lizuniagako gainan.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

IRUN. 100 m²ko pisua salgai Iparragirre karrikan, ganbara eta garaje plazarekin. 16.600.000 pezeta. ☎ (943) 628329.

LEGASA. Pisu bat alokatzen da. ☎ 943-614735.

NARBARTE. Pisua salgai bajera eta baratzearekin. Estrenatu gabea. ☎ 635219. Arratsetan.

BERA. Pisua eta bajera salgai. ☎ 630821 (eguerditan).

LESAKA. Lesakan pisua salgai. 90 m² eta 20 m² terraza eta trasteroa. ☎ 627507 (gauetan).

(arratsaldeko 7etatik aurrera).

Dantza kontemporaneo Beran. Dantza ikasi nahi baduzu orain duzu aukera Beran azaro ondarean hasiko den tailer-rran. ☎ 943-632696.

Sukalde mobleak eta elektrogailuak, egobelako armarioa eta mahaia lau aukiekin, lanparak eta bainuko armarioa salgai. Prezio onean. ☎ 599008.

Traktore karroa salgai, bi urtez erabilia. Ia berria. ☎ 581039.

Mendi bizikleta salgai, ibili gabea. ☎ 510159.

IBILGAILUAK

Renault 19 TS gorria salgai. NA-AB matrikula, 24.000 kilometro eta ex-tekina. ☎ 514217.

Land Rover 88 Special, NA-I, motorrez ongi dabilena, salgai. ☎ 452258 (eguerdi eta arratsetan).

Citroen AX 4x4 kotxe ekipatua salgai. 93 urtekoa, NA-AH matrikula eta 14.000 kilometro eginak. ☎ 630229.

LANA

Kartelak, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego ordu-tan).

Neska bat behar da Aralarko Guarda Etxean. As-teburuak libre izanik, urritik ekainera. ☎ 391000.

AGURRAK

Zubietako Beatrizi zorionak eta muxu haundi bat bere lagun Aintzaneren partez.

Igantziko begi orlegientzat zorionak eta hurrengoan ez begiratu bertze aldera.

Berako Amaia Goiari zorionak bere urtebetetzean (azaroak 2) bere lagun-entz partez.

DENETARIK

120 bajutako akordeoia salgai. ☎ 637158.

Trikitixa bat erosiko nuke modu onean. ☎ 514007

AZIENDAK

Haragitako aziendak erosten ditut. ☎ 450160.



ZALAIN MOTOR

MEKANIKA • KARROZERIA • ELEKTRIZITATEA • GRUA
 ☎ eta Faxe 63 11 57 • Telefono mugikorra (908) 77 80 23
 • BERA •

Aukerako Autoak



Opel Corsa 1.5D / NA-V / 70.000 Km.

Opel Kadett 1.6S
 Ford Orion 1.3
 Ford Fiesta 1.1
 Volkswagen Polo
 Ford Orion 1.6D
 Ford Escort 1.6D
 Ford Orion 1.6D
 Ford Escort 1.8D

SS-Z
 SS-T
 NA-V
 NA-P
 SS-AH
 SS-U
 SS-U
 NA-AB



Ford Fiesta 1.1 NA-V / 81.000 Km.

Aukera zabala Diesel Merkeetan
Auto errebisatuak eta garantia osokoak

MEBLES AMETS

mobleak orokorrean

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA



- Sukaldeak
- Targelak
- Logelak
- Bainugelak
- Pareta
- Armairua

Aukera paregabera

Edozein autorendako

GURPILAK

5.615 pezetatik
aitzinerat
IVA
barne



RENAULT

ETA GAINERAT...
DOHAINIK

PARATU, BERDINDU ETA
NIBELAK IKUSKATU

BEREHALAXEKO HARRERA, AITZINETIKO ESKAERARIK GABE
ORDU BETEAN BAINO FITEAGO

Azaroaren 15era arteko eskeintza

PEDRO GARMENDIA, S.A.
RENAULT • ELIZONDO

Frantziarako Bidea, 57. Km. Tf. 58 04 31/6

CONTINENTAL

NEURRIAK 145/70/13	NEURRIAK 155/70/13	NEURRIAK 165/70/13	NEURRIAK 175/70/13	NEURRIAK 185/65/14
5.615	6.270	7.040	7.915	9.465

III. PERRETXIKO JARDUNALDIAK



AZAROAK 4, *Ortizirala*

- 14,30etan: Haurrak Margotzen. Gaia: Mendia
- 19,30etan: Ehizi eta Arrantza Elkartean hitzaldia:
Jose Manuel LEKUONA: «Onddoak sailkatzeko kontutan hartu behar diren ezaugarriak»

AZAROAK 5, *Larunbata*

- 8,00etan: Mendi Irteera Perretxikoak Biltzera
- 11,00etan: Perretxiko Sailkapena Aranzadikoen eskutik.
- 19,30etan: Iamotenean Mahaingurua:
«Egun horretan bildutako perretxikoei buruz»

AZAROAK 6, *Igandea*

- 10,00etan: Erakusketa Altzateko Frontoian:
«Haurren Eskulanak eta
Bildutako Perretxikoak»

Antolatzaileak:

Gure Txokoa Elkartea, Arratza eta Ehizi Elkartea
eta Berako Udal Kultur Batzordea

ETXANIZ

Erakustokia:

Juan Arana 1 • Tfnoa eta Faxe: 943-611767

Biltegia:

Juan Arana 3



- ✓ Sanitarioak
- ✓ Bainerak
- ✓ Manparak
- ✓ Griferiak
- ✓ Mobleak
- ✓ Ispiluak
- ✓ Kortinak
- ✓ Alfonbrak
- ✓ Osagarriak

